

Arrasate

P R E S S

1996ko
Urriak 31
338. zenb.

*Kontsezionarioen
inbasioa*

Auto marka berriak herrian sartu guran



Hiru ezaugarri dira bereizten gaituztenak:

- **Kalitatea**
- **Zerbitzu ona**
- **Prezio hobeak**

*Egiazta
ezazu!*



BERGARA PIEL

Espaloia, 6 • BERGARA • Tfnoa: 76 20 70



VENTANAS SAN MIGUEL

**Ventanas San Miguelekin...
Denean irabaziko duzu.**


Erosotasunean irabaziko duzu.

**Aurrezpenean eta energian
irabaziko duzu.**

Isolamenduan irabaziko duzu.

Konfortean irabaziko duzu.

Iturriotz, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 78 10



*Etorni guzera!
Denean irabaziko duzu!*

2003

Gaianean dugu urteroko zoritxarreko zozketa. Eta gaianean izan genituen helikoptero militarrek joan zen astean. Akaso publikitatea egitera etorri ziren inguru honetara (Beasain aldean ez zuten ez atxikimendu handirik lortuko), eta agian arrasatearrak izango zen beraien artean. Laister azken hau ez da hain probablea izango. Mende eta erdi inguru irauten duen kapitulua bukatzera doa.


1789ko frantses iraultzak berarekin Iparraldeko Foru sistemak eraman bazituen, urte batzuren buruan Madrilek jarraitu egin zion: 1839ko urrian ekin zion Hegoaldean Foruen deuseztapenari dekretuen bidez. Lege arrotz hauek derrigorrezko zerbitzu militarra (DZM) ekarri zuten, besteak beste.

Iparraldean
1793an,

Nafarroan
1841ean, eta

gainontzeko hiru

probintzietan 1876an. Harrezkero euskal gizonezkoek, finkatutako adina betetzean ejerzitua izan dute aurrean. Gaurdaino. Jadanik jarri baitiote iraungipen data produktuari, lehenengo Parisek eta ondoren Madrilek (betiko moduan aldameneko Estatuaren atzetik): 2003. urtea baino lehenago kontsumatu beharko da, gura izanez gero... Ordurako bi



Estatuak ejerzito profesional bana izango dutela aurrikusten dute.

Beraz, bost belaunaldi inguruk pairatu dute eta pairatzen dugu betebehari hori, obedituz edo desobedituz egoera pertsonala eta garaiaren arabera. Erantzun ezberdinak eman dira honetan, lortu nahi zen helburua ere ezberdina izanik: lehenengo Diputazioek dirulaguntzak eman izan zizkieten kintoei DZM betetzeko, edo dirutan ordaindu izan zuten Estatuarekiko zor hau, Amerikara emigrazioa, desertzioa, insumisioa atzo eta gaur... Bost belaunaldiko tartean. Ez da denbora asko gure historian, kontu izan noiztik dauden euskaldunak lur honetan (urrun joan barik bertan daukagu Lezetxiki).

Eta
nere buruari
galdetzen
diot orduan:
armada profesio-
nala (eta

DZMren indargabetzea) teknologiaren aurrerakadak eta nazioarteko testuinguru berriak ekarri du, ala gaurko insumisio eta eragozleek emandako lezioaren ondorio da? Beste hitzetan: heldu denean erori da sagarra, edo zuhaitzak hartutako astinduen ondorioz gertatu da?

ANDER ETXEBERRIA

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

**ANBOTO
BODEGA**

Auzo giro jatorria!

Anboto, 1 behea
Tfnoa: 77 09 15 ARRASATE

Memesa
79 42 22



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jauriaritzako Kultura
Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro eta Kaitin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maitte Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Loge-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana

AZTERKETA BAKAR BATEZ

25 urtetik gorakoa
bazara,
unibertsitatera
sarbidea

Lortu ezazu
FP-1 ageria

Eskola Grado Agiria
eskuratu ezazu

INFORMA ZAITEZ
40 05 98 edo 39 74 37

I R T A B E R N A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)

Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

EAJ eta ehiza

Urrian gaudenez berriki ehizaldia hasi da. Gutxi gorabeherako kalkuluen arabera, beste urte batzuetan bezala, milioi t'erdi ehiztari (estatuko datuak) 70 milioi animala hilko dituzte. Txikizio hau pairatzen dutenen artean, kopururik handiena paseko txori eta usonena da.

Ehizak dakartzan bor txaketa eta hilketak direla eta, gehiengoaren sentimenduak praktika honen kontrakoak direnean goian aipaturikoa suertatzen ari da.

Kriterio etikoak direla medio ehizari buruz, bakoitzak duen iritzia alde batera utziz, ingurugiroan duen izugarritzko eragina eztabaidaezina da.

Suzko armen erabilera orokortu zenetik, ehizak, animala askoren populazioaren gutxitzean eragin garrantzitsua izan du, honen ondorioz gaur egun espezie batzuk desagertzeaz daude larrik.

Ehizaren praktikak naturan duen eragina ez da animalien hilketa masiboan bakarrik gauzatzen. Inpaktu honen alde handi batek ehizaren inguruko ekintzekin zerikusia du.

Milaka kartutxok eta milaka berun tonak, izugarritzko kutsadura kimikoa dakartzate. Ehiztarien esanetan, arauak beteaz, kartutxoak biltzen omen dituzte, gure mendietan dabilen edonork gezur hau ziurtatu dezakeelarik. Honetaz gain, tiroak kutsadura akustikoren iturburu dira, eta todo terreno edo mendiko ibilgailuek prozesu erosiboak sortzen dituzte.

Dagoeneko dugun egoera larria baldin bada ere,

EAJk Madrilgo diputatu kongresuan proposatutakoa aprobaturiko balitz, gerrak ez dakarkigu itxaropenik.

EAJren proposamenak espezie natural flora eta fauna basatiaren kontserbaziorako martxoaren 27ko 4/1989 legediko 26.4 eta 34.6 artikulua baliorik gabe uztea proposatzen du.

26.4 artikulua: Hil, mindu, molestatu edo intentzioz animala basatiak urduritzea, eta, bereziki 29 Artikuluan kategoriaren batetan aipaturikoak barne direlarik bizi-rik harrapatzea, arraultzak eta kumeak biltzea edo landaretza suntsitzea debekatua geratzen da.

Goian esandako animaliak edukitzea, berauekin trafikitzea, animala bizi, hil edo hondarrak kanpoan saltzea, debekatua geratzen da.

34.b artikulua: Orokorean debekatuta geratzen da kumeske, ugaltze, hazkunde eta espezie migratorioen kasuan, hazkuntza egiten den tokietara doazenean ehizatzea.

Bi artikuluen irakurketarekin artikulua efekturik gabe ustean artikulok debekatzen dutena egitera bultza dezakete.

Epe laburrean, hain zuzen ere, udaberrirako kontrapasa baimentzea jeltkideen buruan dagoela baieztatu daiteke.

Egoera aldatu dela, praktika hauek gure mila urteko kulturaren parte direla e.a. esango digute. Erretorika!

Inguruarekiko izugarritzko sentibilitate faltaren ondoren joera elektoralistak baitaude eta ehiztariak asko direla eta botoak, botoak direla, kontuan eduki behar da.

EAJren proposamena aprobaturikotan 4/1989 legea edukirik gabe geratuko litzateke eta naturarekiko zorigaitzeko ondorioak ekarriko litzuke.

JAVIER ABALDE

Gaztetxoentzat lokalak

Gaztetxoek eskolaz kanpo igarotzen dituzten ordu gehienak, euren konturakoak, ia ia kaleetan galdurik igarotzen dira. Zer posibilidadetaz dituzte gaur Arrasaten? Kalistiroak, parkeak, kaleak... eta zer?

Zerbaiten falta dagoela somatzen da. Adinari dagoen ekintzak antolatzeke balio diezaieken aterpedun jolaslekuak edo topalekuak falta zaizkiela komentatzen da.


Jakina da, 12-16 urtetan (nerabezaroan) neska-mutilak biologikoki aldatzen direla. Ez hori bakarrik, adinaren honetan ohiturak ere aldatzen dira, pentsaera bezala. Heldu egiten dira bai gogoz, bai fisikoki. Adin honetan erantzukizunak hartzen ikasi behar dute eta honek pertsona helduak bezala tratatzea eskatzen du, baina nola bitartekorik ez badute?

Zergatik ez dizkiegu gurasook eskaini behar lokal batzuek euren gustoko ekintzak antola ditzaten?

Nori dagoeneko iniziatiba hartzea?

JOXEMARI MUJICA

Zer iruditzen zaizu San Kristobalگو kanposantua?



Haritz Unamuno
Ikaslea
(17 urte)

Kanposantua ondo dago, zaharra baino hobeto esango nuke.



Dionisia Murgiondo
Etxekoandrea
(62 urte)

Polita da baina zaharra gehiago gustatzen zait, alaiagoa da. Domu Santu egunean joateko asmoa daukat.



Gregorio Etxabe
Langilea
(58 urte)

Toki politean dago eta itxura ona dauka baina laster beteko den susmoa daukat, txiki geratzen ari da eta. Bestela polita iruditzen zait. Domu Santu egunean joateko ohitura gehiegi ez dut baina aurten jendea bertara eramatea suertatu zait eta joango naiz.



Kontxi Perez
Etxekoandrea
(54 urte)

Egia esateko ez zait asko gustatzen, gainera bertan egon naizen azken aldian usaina zegoen. Lekua polita da baina kanposantua ez. Domu Santu egunean buelta bat emateko asmoa dut.



Haritz Gantxegi
Ikaslea
(18 urte)

Egonda nago eta ondo dagoela uste dut. Domu Santu egunean seguruen joango naiz.



Dolores Nogera
Etxekoandrea
(69 urte)

Lekua polita da baina kanposantu moduan ez zait gustatzen. Kanposantua baino beste edozer gauza ematen du.



Antonio Valor
Langilea
(45 urte)

Eguzkipean dauden hillobiak ez zaizkit gustatzen, nire arreba bertan dago eta ez zait atsegina egiten bertara joatea. Hala ere Domu Santu egunean joango naiz.



Feliciano Casado
Etxekoandrea
(63 urte)

Egiten ari zirenean joan nintzen baina ez dut bukatuta ikusi. Domu Santu egunean ez naiz joango ez dudalako senitartekorik.

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 19 71 Tfnoa: 79 26 23



JUBAR

- Ate eta pertsiana automatikoak
- Urrunerako agente tresnak
- Mantenimendua
- Seguritate pertsianak
- Sarbide kontrola

Kataide Poligonoa, 18 • ARRASATE • Tfnoa: 79 10 20 • Faxa: 79 08 17

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza	
orokorra eta pediatria	77 03 46
• Espezialitateak	77 05 78
	77 12 64
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(345) 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

Udaltzaingoa

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 33
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza088

Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

Garraioak

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

KIUB-OMIC	79 51 55
-----------------	----------

Monterongo liburutegia

Monteron	77 01 05
----------------	----------

Irratia

Arrasate Irratia	79 58 77
------------------------	----------

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 1

10ak arte: Morales. San Andres. Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.

Larunbata 2

10ak arte: Azkoaga. Ferrerías. Egunez eta gauez: Puy. Bergara.

Igandea 3

10ak arte: Español. Iturriotz. Egunez eta gauez: Puy. Bergara.

Astlehena 4

10ak arte: Corcuera. Musakola. Egunez eta gauez: Puy. Bergara.

Asteartea 5

10ak arte: Irizar. Erguin. Egunez eta gauez: Estella. Bergara.

Asteazkena 6

10ak arte: Amezua. Santamaina. Egunez eta gauez: Mozos. Bergara.

Osteguna 7

10ak arte: Ruiz. Maala. Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.

31 OSTEGUNA

• **ZINEA**

"Diabólicas" 7etan eta 9.30etan.

• **ZINE KLUBA**

Zarautzen burutzen ari den Ere-mu Urriko Hizkuntzen Zine-maldiko bi filme eskainiko dira gaur, biak euskarazko azpitu-luekin: Branwen eta Denko. Gaueko 9.30etan Amaia antzokian. Sarrera: 400 pta eta gazte txartela-rekin 350 pta.

1 OSTIRALA

• **DOMU SANTU EGUNA**

• **ZINEA**

"Diabólicas" 7etan eta 9.30etan.

• **MENDI IRTEERA BESAIDE-REKIN**

Linzara mendi irteera. Autobusa goizeko 6etan Garibaitik. Besaidek antolatuta.

• **ZINEAREN 100. URTEURRENA OSPATZEKO KONTZERTUA**

Kontzertu berezia Aramaion zinearen 100. urteurrena ospatzeko. Tarragonako Lasenia hiriko Joventus Unides talde instrumentala eta abesbatza etorriko dira. Kontzertua gaueko 8etan Aramaio-ko elizan.

2 LARUNBATA

• **ZINEA**

"Dragon Heart" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

AEDKO BERTSO-ESKOLAK

Azaroaren 8an AED elkartearen bi bertso eskola jarriko dira abian. Arratsaldeko 7etan gaztetxoek bertso-eskola eta gaueko 8.30etan helduena. Ikastaroak AEDko lokalean emango dira eta parte hartu nahi izanez gero deitu 77 12 28 zenbakira.

GERONTOLOGIA IKASTAROA

Azaroaren 18tik 28ra, zaindaria: familiarte eta profesionalak ikastaroa arratsaldeko 5etatik 7.30etara. ICTEko Heziketa gelan, Lora-mendi 4. Izenematea ikastaroa hasi baino 5 egun lehenago. Informazio gehiagorako deitu 79 02 11 edo 77 05 00 zenbakietara.

MALABARAK GAZTETXEAN

Asteartero arratsaldeko Setatik aurrera malabar ikastaroa Arrasateko Gaztetxean. Izena emateko bertara jo.

EUSKO ALKARTASUNAREN OHARRA

Azaroaren 16an ardi eta buzkantz bazkaria egingo da Arrasateko Alkartetxean. Interesatuta bazaude Alkartetxetik pasa zaitezket edota 79 64 53 zenbakira deitu arratsaldeko 7etatik 9etara. Era berean pintura, sukaldaritza eta eskulanen ikastaroak antolatu nahi dituzte Eusko Alkartasuneko kideek. Interesa duzenok deitu aipatutako zenbakira.

3 IGANDEA

• ZINEA

"Dragon Heart" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• KOMIKIAK 100 ERAKUSKETA

Harresi aretoan dagoen Komikiak 100 erakusketaren azken eguna. Ordutegia: 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8ak arte

4 ASTELEHENA

• ZINEA

"Dragon Heart" 7etan eta 9.30etan.

• HEZIKETARI BURUZKO HITZALDIA

Umeen heziketari buruzko hitzaldia arratsaldeko 7etan Monterronen. Hizlaria: Antxon Zubiaurre, pedagogoa. Arrasateko artziprestalgoak antolatuta

• KUBAREN ALDEKO ERAKUSKETA MONTERRONEN

Komite Internazionalistek antolatuta Monterongo erakustaretoan *Kubarekin bai noski* izeneko erakusketa ikusgai izango da gaur hasi eta azaroaren 10era arte. Asteazkenean zehar arratsaldeko 6etatik 8etara egongo da zabalik eta jai egun eta asteburuan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

5 ASTEARTEA

• ZINEA

"Dragon heart" 7etan eta 9.30etan.

• EMAKUMEEI BURUZKO HITZALDIA

Gaia: Emakumearen rola gaur egungo familian. Hizlaria: Begoña Egiluz. Arratsaldeko 7etan Monterronen. Arrasateko Artziprestalgoak antolatuta.

6 ASTEAZKENA

• HEZIKETARI BURUZKO HITZALDIA

Gaia: Gizarterako hezi familiarik. Hizlaria: Jose Maria Setien. Arratsaldeko 7etan Monterronen. Arrasateko artziprestalgoak antolatuta.

• EUSKADIKO ORKESTRAREN KONTZERTUA

Juan Jose Menaren zuzendaritzapean Euskadiko Orkestrak kontzertua eskainiko du Amaia Antzokian arratsaldeko 7.30etatik aurrera. Usandizaga, Bruckner eta Mozarten lanak entzungai.

7 OSTEGUNA

• ZINEKLUBA

"Vidas cruzadas" gaueko 9.30etan Amaia antzokian. Prezioa: 400 pta eta gazte txartelarekin 350 pta.

• PELLO AÑORGA HAURLIBURUTEGIAN

Pello Añorga ipuin-kontalariaren emanaldia Monterongo haur-liburutegian arratsaldeko 5etan.

• HITZALDIA ESKORIATZAN

"Osteoporosia prebenitzeko arketak eta elikadura. Hizlaria: Valentin Zurbano. Arratsaldeko 6.30etan Eskoriatzako Kultur Etxean.



DOMU SANTU EGUNEAN HILERRIA ZABALIK

Urtero bezala, azaroaren lehen egun honetan zabalik egongo dira San Kristobalگو nahiz Aldaiko hilerriak goizez eta arratsaldez.

“Badira hoge baido gehiago gure Gasteizera etorri nintzela ikastera, eta egia esan behar baldin badut garai hartako Gasteizko euskararen egoera eta gaurkoa ez dira konparagarriak. Kalean euskara entzutea ez zen batere ohikoa (ez zait ahanzi euskaraz hitzen bat aditu eta atzera begiratzan genueneko garaia), non ez bazen feria eguna edo horrelako egun seinalatu bat. Dakikezunez, egun horietan Aramaio eta Leintz aldeko baserriarrak inguratzan ziren Bittoixera, eta haien euskara entzuteko parada izaten zen belarria tente jarriz gero.

(...) Baina guztiarekin ere, ez da nahikoa Cuerda jauna. Euskarak balio bideak behar ditu edo, beste hitzez, dirua. Arreta jar iezazazu honako zenbaki hauei. Gasteiz baino 8 aldiz txikiagoa den Arrasateko Udalak, hitzarmen baten bidez, honelaxe lagundu ditu euskal elkarteok: haur eta gazte ekintzez arduratzen den Txatxilipurdi elkarteari 17.800.000 pezeta, ARKO (Arrasate Komunikabideak) elkarteari 30.300.000, eta AEDri (pareka gure Bagare edo GEU txiroekin) 7.400.000”.

Txipi Ormaetxea, 1996-10-27.

Egunkaria

“...Badira onartu ezin daitezkeen egoerak, esaterako Lanbide Heziketa edo Unibertsitateko ikasketak euskaraz egin eta enpresara pasatzen direnean erdararekin aurrez aurre egin dutenena. Ordura arte euskaraz bizi eta bat batean guztiz erdalduna den giroa aurkitzen dute. Buelta eman behar zaio horri.

(...) Inkesta bat egingo balitz ingelesa beharrezkoagoa dela aterako litzateke, baina hemendik urte batzuetara aldatu egin liteke pentsamolde hori, aipatutako plangintzari esker. Euskararen alde borrokan ari den jendeari... esaziozuzteko!

Joxe Ramon Elortza, 1996-10-27.

egin

Zergatik izango du ur eta zabor errezi boak igoera handiena?

Joan den ostiraleko plenen onartu zenez, ur eta zabor errezi boak %12,8 igoko da datorren urtean, kontsumoa minimoa den kasuetan. Zergatik? Ura garestitu egin delako azken urteetan.

Orain dela urte batzuk Urkullutik hartzen genuen uragatik ez genuen ezer ordaintzen, baina orain ordaindu egin behar da eta prezio horri aurre egiteko urteroko igoera batz bestekoa baino handiagoa da azken urteetan. Bestalde, saneamendurako ezarri den kanonak ere eragina izan du ur eta zabor errezi boaren garestitzean. Gipuzkoako ur partzuergoak hasi duen erreken saneamendurako, Udalak bereziki ordaindu behar duen kanonari aurre egiteko aplikatzen da. Iaz saneamendu tasa hori ur errezi boaren %20 igo zen eta aurten %25.

Zergen eta tasen igoera urtero egiten den zerbait da, hain zuzen ere, Udal zerbitzuak urtetik urtera garestiagoak direlako, eta zoritxarrez, zerga orokorretik nahiko diru ez delako jasotzen Udalean. Beraz, igoera horri aurre egiteko zergak eta tasak igotzea da Udalak duen baliabideetarikoa bat.

Inguruko herrietan zergak eta tasek izaten duten igoera ez dut zehaztasunez ezagutzen, baina orokorrean %4 igoeratik behera ibiltzea ez da erraza izango. Herri horiekin konparatuta, Arrasate merkexegoa da baina hala ere horrek ez du kontsolatzeko balio behar. Diru horrekin zer egiten den eta zertan inbertitzen den da garrantzitsua.



Ino Galparsoro
Hazienda Batzordeburua



**Parques
y Jardines**

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Plenoak armadaren presentzia gaitzestu zuen

Joan den ostegunean eta ostiralean armadaren soldaduek Arrasaten maniobrak egin zituztela eta, alkateak armadaren presentzia gaitzestea eskatu zion plenoari. PSE-EEko zinegotziak kenduta, HB, EAJ, EA eta EBko zinegotziak armadaren presentziaren kontra azaldu ziren.

Rafaela Romerok kargua uzten zuela eta, eskainitako zerbitzuagatik eskerrak eman zion alkateak Arrasateko herriaren izenean. Bestalde, 97rako udal zergak eta tasak ahobatez onartu ziren.

Bukavuri bultzatzen bat

Aretxabaletako Hirugarren Mundu Taldeak antolatuta, joan den zapatuan arte martzialen ikuskizuna izan zen Arrasaten. Iaz baino jende gehiago hurbildu zenez kiroldegira, antolatzaileak pozik azaldu ziren ikuskizunak izan zuten harreraz. Antolatzaileek azaldu zuten, Bukavu proiektuaren lehenengo fasea bukatuta dago baina orain jarraipena ematea eskatu diete. Bigarren faseak 9 milioiko aurrekontua du, eta helburua beste 13 eskola eraikitzea da. Zairen errefuxiatuta dauden ruandarrei lagundu nahi die Bukavu proiektuak.



AEDko lehiaketan 10. urtemuga ospatzeko ekitaldia

Aurten hamar urte betetzen dira AED Iokin Zaitegi Itzulpen Sariketa, eta Arrasate Lehiaketak antolatzen hasi zirenetik. Horregatik, asteartean ospakizun ekitaldiak egin ziren Monterronen. Iazko Jokin Zaitegi sariketan irabazle izan ziren lanak gaitzat hartuta, Jose Luis Enparantzak Txillardegik eta Andoni Sagarinak hitzaldia eman zuten. Horrez gain, iazko ekitaldian sarituak izan ziren lanak biltzen dituen liburua ere aurkeztu zen.

Antolatzaileek esan zuten, 887 lan aurkeztu dira hamar urteetan.

Fagorreko kontseilu soziala Senideak-ekin

Fagorreko kontseilu sozialak, 6.000 bazkide ordezkaten dituen organuak, Senideak elkarteak aurkeztutako agiria sinatu zuten joan den ostiralean. Zazpi punturekin osatua dagoen agirian esaten denez, euskal preso politikoaren sakabanatze politika ez legezkoa da, eta horregatik, euskal preso guztiak, sozialak eta politikoak, lehenbailehen Euskal

Herria ekarri behar dira. Akordioaren berri Espainiako eta Frantziako gobernuetara helaraziko zaiela ere esaten da.

Horrez gain, hurrengo kontseilu sozialean presoaren sakabanaketaren jarraipenaz arduratzeko plataforma eratzea proposatuko da.

Sei bosniar itzuli

Eskoriatzan bizi izaten egon diren sei bosniar euren jaioterrira itzuli ziren

joan den asteartean. Hainbat eskoriatzar autobusez Sondikara joan zen, bosniarrei agur esatera.

Gabonetan lau urte beteko dira bosniarrak Eskoriatzara heldu zirenetik, eta orain 13 bosniar geratzen dira.

Almeneko ikasleen kontzentrazioa

Astearte eguerdian euskal presoek Euskal Herriratzearen aldeko kontzentrazioa egin zuten Almeneko 100 ikaslekin. Almen beheko errepide ondoan egin zuten kontzentrazioa. Bailerako beste eskola batzuetan ere horrelako kontzentrazioak egiten dira asteartean.

JAIOTZAK

- Iban Olea Zurbano. Urriaren 17an.
- Ariadna Perez Guerrero. 18an.
- Ander Davila Davila. 18an.
- Maider Arrotxa Herrero. 20an.
- Elena Orueta Perez de Labeaga. 20an.
- Mireia Isazelaia Bujanda. 23an.

EZKONTZAK

- Asier Kerejeta Lopez eta Ana Maria Quintas Gigado. Urriaren 19an. Zibilez.
- Santiago Roman Mendizabal eta Maria Lurdes Zubizarreta Agiriano-Zabala. 19an. Zibilez.
- Pello Urizar Karetxe eta Miren Jasone Giraldo Menendez. 26an. Elizatik.

HILDAKOAK

- Justina Antigua Madina. Urriaren 22an. 93 urte.
- Emilia Elorza Arenaza. 23an. 85 urte.



Zure OPEL banatzailea ARRASATEN, zergatik joan urrunago?

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE



Pili Garcia *

Helms-Burton legea eta Kuba

Bere independentzia lortu zuenetik (1898) Estatu Batuen erasoak jasan behar izan du askotan Kubako herriak. Interbentzio militarrek ugariak izan dira mende honetan, eta 1959eko iraultzaren ondoren blokeo komertziala izan da kubatarren aurkako neurrikerria erabili.

Funtsean, blokeoen helburua bat izan da beti: kubatarren kontsumo eta inbertsiorako ahalmenaren murrizketa, Karibeko irlaren salmentak oztopatuz eta kanpoan egin beharreko erosketak garestituz.

Helms-Burton delako lege berria aurrekoak baino gogorragoa da, zeren aukera ematen die Estatu Batuetako auzitegiei atzeritarrak epaitzeko, baldin eta amerikar kapitalarenak izandako ondasunak (lurrak, eraikuntzak, instalakuntza...) era-

biltzen badituzte Kubarekin sortutako harreman komertzialekin.

Ezuste polita izan da europar komunitateak lege berri honen aurka agertu duen jarrera, askatasun komertzialaren oinarriak erasotzen dituela salatuz.

Sobiet Batasunaren porrotaren ondorioetara egokitzeko Kubak eginiko esfortzu handiak bere fruituak ematen ari dira azken urte hauetan. Hobekuntza horien

aurka doa zuzenean Helms-Burton legea.

Kubatarren politika berrikerria arrakastatsuen kanpotar kapitalari emandako inbertsiorako erraztasuna izan da. Eta hemen kokatu behar dugu europarren erantzuna.

Halere, kontuan izan behar dugu ez dituela Europar erosten bere lehengai garrantzitsuenak, eta 34 urte iraun duen blokeoaren ondoren, bere egoera txartu daiten.

Guzti honen inguruan Arrasateko Komite Internazionalistak taldeak erakusketa bat egingo du Monterronen azaroaren 4tik 10era. Gonbidatuta zaude erakusketa bisitatzera eta gurekin lana egitera Kuba eta Hirugarren Munduko herrien alde. Guztion elkartzuna beharrezkoa da.

*** ARRASATEKO KOMITE INTERNAZIONALISTAK**

.....

“Ezuste polita izan da europar komunitateak lege berri honen aurka agertu duen jarrera”

USTEAK USTE

ASTERO ZUEKIN

Hemendik aurrera astero izango nauzue aldizkariaren zutabe honetan. Izan ere, ARKORen erredakzio buru izatearen ondorioz, Arrasateren gainean sortzen diren berri gehienak eskuartera ailegatzen zaizkit egunero, eta neuri zuzenean ez denean, ingurukoei. Teorian, behintzat, ematen dit horrek gaien inguruko ikuspegi orokor bat izateko aukera, ardura edo arrazoia. Horregatik izango nauzue astero zutabe honetan nire iritziak emanez, ez ARKORenak edo Arrasate Presserenak, nireak. Alde horretatik argi utzi beharra dago zutabe hau ez dela editoriala izango, aldizkari zuzendariaren iritzien tokia baizik.

Asteko protagonista izan den gai hau, ia konturatzeke pasatu den beste hura, horrek telebistan esandakoa eta aldamenekoak irratian erantzun ziona, kafea hartzera irten eta tabernaria-bezeroa elkarrizketan atentzioa deitu didan kontu hori, diru eskean ikusi dudana amonaxo errenaren begiradak pentsarazi didana... denetarik irakurri ahal izango duzue lerro hauetan. Idatzitako gehienarekin ados bazaudete, ni pozik, baita erdiarekin edo ezerrekin ez bazaudete ere. Ah, baina azken kasu honetan ez ahaztu gutuna bidaltzen eta zure desadostasuna jendaurrean azaltzen, aldizkaria denona da eta.

BEÑARDO KORTABARRIA

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
 Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tfnoa: 79 81 82

beinke

HAURTOKO
 Arrasate Pasealekua 4,
 Tfnoa: 79 14 90
 ARRASATE

Haurdun bazaude
LAURA da zure
jantzidenda.


Udazkeneko moda
gaztea jazteko neurria
ez da izango arazoa.

Tailaje zabalena dugu.

Laura



Erdiko Kale, 30
Tfnoa: 79 05 80
ARRASATE



LORAMENDI

*Udazkeneko
arropa guztia
zuretako prest!*



Azaroaren 21ean hasiera emango zaie gurasoen mahaiak antolatutako topaketei.

Gurasoek ere informatu beharra dutelako

Arrasateko Udalak, gurasoen mahaiaren proposamenez, Gurasoen arteko Topaketak antolatu ditu. Topaketok azaroaren 21ean hasiko dira, eta asteen, izena emateko epea zabaldu dute antolatzaileek. Lau ordutegi desberdin prestatu dira, lan egiten dutenek eragozpenik izan dezaten.

Gizarte Zerbitzuetako teknikariak, Aska-gintzako kide batek, eta eskoletan antolatuta dauden gurasoen elkarteko partaideek osatzen dute gurasoen mahaiak.

Topaketen helburua gurasoak hezitzea eta informatzea da. Izan ere, hainbat gaik kezka betetzen ditu gurasoak, eta antolatzaileen arabera, horren aurrean informatuta egotea da onena. Bestalde, beste guraso batzuen iritziek eta esperientziak, dudamundak horiek argitzen lagunduko dutela uste dute.

Zazpi saioz osatuta egongo diren topaketetan honako gaiak buruz hitzegingo da:

- Drogomenpekotasuna: Droga eta dependentsia zer den. Horrez gain, alkoholaren garrantzia, diseinuko drogak eta astebuka-

erako kontsumoari buruzko hainbat argibide emango da.

- Psikologia ebolutiboa: Seme alabek zein aldaketa jasaten dituzten, eta 0 urteik 7 urtera arteko faseak zelako garrantzia duen.

- Autoestima: Autoestimaren eraketan gurasoek zelan lagun dezaketen.

- Sexualitatea: Sexualitatea bere orokortasunean onartu, familia eta gizabanakoa osasuntsu egon daitezen.

- Eskola eta familia: Familian giro egozia bultzatu, ikasteko giro ona egon dadin.

- Aisialdia eta familia: Aisialdiak duen garrantzia. Telebistaren eragina.

- Prebentzioa eta familia: Drogomenpekotasuna zelan prebenitu.

Azken topaketak orain dela hiru urte egin ziren, eta antolatzaileen esanetan, emaitza onak eman zituzten. 92 gurasoak parte hartu zuten orduan. Topaketak dinamizatzeaz Izadia gabinetekoak arduratuko dira. Aurreko ekitaldietan ere Izadiakoak izan dira dinamizatzaileak.

Azkena tabernari abisua

Hiru hilabete baino lehenago IGOKA espedientea tramitatzea eskatu dio Udalak Azkena tabernari. Baimendutako orduetan ezezik, beste ordu batzuetan ere taberna zabalik egoten delako, eta zarata handiegia sortarazten duelako tramitatu beharko du espedientea. Hori egin bitartean, gainera, gaueko 10etatik 8etara ezingo du musika edo telebistarik jarri.

Inem-en eraikinean gasa sartu

Inem enplegu erakundearen eraikina izango denean gasa sartzen hasiko dira las-ter. Lan hori Naturgasek egingo du, eta 1.148.000 Pta. kostako da. Udalak ordainduko du kostua.

AKEIko langileek greban jarraitzen dute

AKEIko erraustegian lan egiten duten hamar langileek greban jarraitzen dute. Erraustegiko langileak greban daudela eta, Mankomunitateak Sasieta bidaltzen ditu orain zaborrak.

ELA sindikatuko ardura-dunaren esanetan, Lan Inspektzioan Mankomunitatea egiten ari dena ez legezkoa dela esan diete, eta orain, erantzun hori idatziz noiz jasoko duten zain daude.



HEMEN
gozotegia
GAO kafeak
Kroissanteria

Sebero Altube, 8 • Tfnoa. 79 94 99 • ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82



Asfaltoaren ordezh harria ipiniko da besteak beste.

Maalako Errabala konpondu eta oinezkoendako bihurtu

Erdiguneko zaharberritze proiektuari jarraipena emanez, laster Maalako Errabala konpontzen hasiko dira. Joan den ostiraleko plenoak argi berdea eman zion kale horretako urbanizazio proiektuari eta aurrekontuari. 40 milioi gastatuko dira guztira.

Lehenik eta behin, gaur egun dagoen asfaltoa jaso eta horren ordezh harria ipiniko da, erdigunean dagoenaren antzekoa. Bide batez, gainera, etxeetako fatxadetan dauden telefonikako eta Iberdueroko kableak lur azpira eramango dira. Bestalde, ur sarearen zati

bat zahartuta dagoenez, hori ere berritu egingo da. Maalako Errabalaren 3an hasiko dira konponketa lanak, eta 33an bukatu.

Obrak adjudikatutakoan, lehenbailehen konponketa lanak egiten hasiko dira. Aurreikuspenen arabera, lau edo bost hilabete iraungo dute obrek. Behin konponketa eginda, oinezkoendako kalea izango da Maalako Errabala, eta beraz, ordu batzuetan autoek ezingo dute kale hori zeharkatu. Aurrerago, San Frantzisko elizaraino doan bidea eta Maisu Arano kaleak zaharberritu nahi dira.

Dirulaguntzak gazte taldeei

Gazteriaren batzordeak dirulaguntzak banatu die herriko gazte taldeei. Corazón de Encinak 50.000 pta. jasoko ditu; Orkatzek 212.500 pta.; Gizaizpi Alaiak 62.500 pta.; San Frantziskok 100.000 Pta.; AEDko Gazte Sailak 200.000 Pta.; Besaide "Gazte Ekin-tzak" 157.500 pta.; Al Andalussek 50.000 pta.; Galtzagorrik 162.500 pta. eta Talde Antimilitaristak 250.000 pta. Maiatzean dirulaguntzaren erdia aurreratu zitzaizen talde horiei, eta orain bigarren zatia eman zaie.

Sexualitate zerbitzua adjudikatu

Udalak erabaki du zeini adjudikatu sexualitate zerbitzua. Ane Oiartzun eta Maitane Zubia sexologoak arduratuko dira zerbitzua abian jartzeaz. Bi sexologoak Sus-traia elkarte sexologikoko partaideak dira.

Asmoa lehenbailehen zerbitzuarekin hastea da, baina lehenengo ordutegia finkatzeko asmoa dago besteak beste.

Baster-alde



Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa

ARETXABALETA

Tfnoa: (943) 79 24 58

INDUSTRIAL TEKNIKO IKASTAROAK

Formakuntza sistema irekia
Multimedia Metodologia - Interaktiboa

- Elektrikari instalatzaile karneta
- Automata programagarriak
- Ordenadorez lagunduriko diseinua.
- Injekzio termoplastikoak
- Elektronika analogikoa
- Elektrizitate industrialak
- Automobilaren diagnostika


INFORMA ZAITEZ
40 05 98 edo 39 74 37



San Viator ikastolak antolatuta Lehen Perretxiku Lehiaketa burutu zen domekan. Sebero Altube plazan inguruko mendietan jasotako era guztietako perretxi-kuak zeuden ikusgai, onak eta txarrak nahasturik. Lehiaketa izanda, irabazlea egon behar eta sariketa honela gelditu zen: sorta onenaren saria DBH 2. mailako Goxua Goxua taldeak eraman zuen; amanita desberdinen bilduma onenarena Ajo Pringe taldeak; boletus ondoen bildumarena eta entoloma Lividum sortarena Astoputzak; perretxitxoen aurkezpen onenarena Gibelurdirna taldeak. Perretxikuak batzen trebezia erakutsi zuten gazteek orain onak eta txarrak bereizten ikasi behar!



Pello Urizar eta Jasone Giraldo arrasatearrak urriaren 26an ezkondu ziren, Musakolako San Isidro elizan. Bazkaria, berriz, Gure Ametsan izan zen 200 gonbidaturekin. Nahikoa lan izango zuten ezkonberriek guztiekin dantzan egin behar izan bazuten! Ezkon bidaian EEBBtara eta Kanadara joan dira. Urte askotarako!



Arku tiraketa erakustaldia egon zen Musakolako kiroldegian domekan. Aukeak antolatutako ekintza horren helburua kirol horrekiko zaletasuna piztea da Arrasaten. Dagoeneko diana, arku eta geziak egon badaude kiroldegian, orain tresna horiek mugimenduan jarriko dituzten kirolariak falta!





Sasoi hau heltzen denean urtero bazkaria egiten dute 1949an jaio-tako kintoek, eta joan

den zapatuan ere horixe egin zuten. San Frantzisko elizan meza entzun, argazkia atera eta

beti moduan Meson Manolora joan ziren bazkaltzera 46 urteko arrasatear hauek.

IZEN PROPIOAK

- **Idoia Lazpita** 28 urteko arrasatearra Udal-tzain berria da. Idoiak diseinua ikasi zuen Azpetian eta jubilatua den Santiago Gonzalez ordezkatu du.



Angel Etxabe eta **Joxepa Otaduy** orain dela 50 urte ezkondu ziren Musakolako San Isidro elizan, eta urriaren 26an urrezko eztaiak ospatu zituzten eliza berean. Bost seme alabekin, suhiekkin, zortzi ilobekin eta beste hainbat gonbidaturekin egun polita pasatu zuten Angelek eta Joxepak. Zorionak!



GOROSTI
Jatetxea

MENUA • PLATER KONBINATUAK • KARTA
(Eskola Politeknikoaren ondoan)

Arimazuri Plaza • Tfnoa: 77 06 07 • ARRASATE

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

Zaldibarko Futbito Txapelketa

*Laugarren ihardunaldia.
Elkarrizketa: Oier Martin.
Emaitzak eta sailkapenak.*



Protagonista berriak zerrendetako aurreko postuetan

Betiko taldeak faborito direla esaten bada ere, sailkapenari begira talde berriak daude goialdean. Ojo avisore, Betrayer, Abinagraus, Naranja Mekanika, Motz, Orlando piratas... batzuk aipatzeagatik sendo ari dira lehen

postuetan. Hala ere, ez da ahaztu behar dagoeneko 4. ihardunaldia baino ez dela jokatu eta Zaldibarren beste kiroletan bezala esperientziak asko balio duela. Beraz gerta daiteke hemendik aurrera Fosforos, Argi Ibili edo Adelaida bezalako

taldeak euren jakintasuna erakutsi eta aurreneko postuetara hurbiltzea. Hori gertatzen den arte, gertatzen bada gutxienez, beste talde batzuek hartuko dute protagonismoa eta era berean txapelketako pisua.

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

BAKAILOETXEA



- Bakailoa eta beroni buruzko produktuak
 - ISLANDIAko bakailoan espezializatua
 - Bakailo kazoretak prestatzen dira (bakailo gatzgabetua daukagu)
- Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan)
Tfnoa. 79 93 07

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

Protagonistak

Oier Martin (Antolatzailea)

— Lehen urtea antolatzaile moduan zerk bulztatuta sartu zara taldean?

— Haritz Azkarragak jendea behar zutela esan zigun eta animatu egin ginen beraz hemen gaude.

— Bileretan antolatzaileek zer egiten dute?

— Astelehenero elkartzen gara eta lehenik eta behin ihardunaldia nola joan den aztertzen dugu. Gero zigorrak eta zerbait berezia gertatzen bada erabakiak hartzen dira eta era berean hurrengo ihardunaldia prestatzen da, epaileak aukeratu, taldeak elkar-tu.

— Nola hartzen dira erabakiak?

— Denboraldi honetan ez da ezer arraroa gertatu, beraz ez dugu erabakirik hartu baina bestela bozketa bidez.

— Antolatzaile batek zer ardura du Zaldibar txapelketan?

— Astebururo astebururo neurketak zaindu behar ditugu. Ni gainera baloiez arduratzen naiz. Zerbait gertatzen bada nik daukat erantzunkizuna.


— Zure ustez nola doa aurtengo txapelketa?

— Gaur arte primeran, ez da iskanbilarik egon eta hori ona da.

— Talderen batean jokatzeko duzu?

— Bai Gualtrapasen. Bide batez esan behar dut antolakuntzako gehienok jokatzeko dugula talderen baten.

— Antolatzailea izan eta talde batean jokatzeko, konpatiblea da?



— Bai horixe, herri mailako txapelketa bat da eta zure bertako jokalaria izanda gertuagotik ikusten duzu neurketetan gertatzen dena.

— Zure taldeak arazoren bat izanez gero, erabaki bat hartzeko orduan neutrala izango zinateke?

— Izan behar, zorionez gaurdaino ez zaigu ezer gertatu baina gertatuko balitz uste dut objektiboa izango nintzatekeela.

— Damututa zaude antolakuntzan sartzeagatik?

— Ez, alderantziz, oso pozik nago. Gure artean giro jatorra dago eta ondo pasatzen dugu. Gainera noiz-behinka afariak eta meriendak ere egiten ditugu.

— Txapelketako talde onenak zeintzuk dira?

— Betikoak esango nuke. Argi Ibili, AC Surcos ondo dabil, Sokoakoak ere badu taldea aurrean ibiltzeko, Naran-

ja Mekanika.

— Zergatik ez dago emakumerik antolakuntzan?

— Egia esateko ez dakit. Esan didate lehen bazeudela, orain beharbada inor ez delako animatzen izango da. Baina guretzat jakina, emakumeak egotea hobeto izango litzateke.

— Ze pisu du Zaldibar txapelketak Arrasaten?

— Nahiko handia, jende ugari hurbiltzen da eta adin guztietakoa.

— ARRASATE PRESSEK lau orrialdea eskaintzen dizkio Zaldibar txapelketari zer iruditzen zaizu?

— Oso ondo. Ondo dago jendeak txapelketa jarraitzeko. Taldeetako jokalariek normalean euren emaitzak eta euren partiduen berri izaten dute baina gainontzeko taldeena ez. Hori jakiteko bide bakarra ARRASATE PRESSEn dago.

Labur

■ LEHEN LESIONATUA

Lorategi potroak eta Aurrera bolieren arteko partiduan Rikardo Lopez Rekarte erori eta zartada handia hartu zuen ukondoan. Zartadaren ondorioz hainbat astetan ezingo du jokatu, beraz animo eta azkar sendatu. Rikardo txapelketako lehen lesionatua izan da.

■ GOLEADA IZUGARRIAK

Golak sartzeko orduan trebe eta fin ibili da hainbat talde. AC Surcossek 12 sartu zizkion KK jaurlaritzari. Ojo Avisorek 15 Etxemobel talderi eta Okoretetik beste 15 Elisabethi. Atezain batzuk beraz nahikoa lan izan dute sare barrutik baloiak ateratzen.

■ LEHEN NEURKETA IRABAZI

Diego Antonio, Onarieng eta Bukanak taldeentzat ihardunaldi berezia izan da pasa berri dena, izan ere txapelketako lehen garaipenak lortu dituzte. Ea ba, ez den azkena eta aurrerantzean gehiago lortzen dituzuen!

■ 5. IHARDUNALDI BEREZIA

5. ihardunaldiak bere berezitasuna izango du. Partiduak ostiralean ere jokatu dira. Domusantu egunean jai izan arren, Zaldibarkoek ez dute atsedeenik hartu eta hiru eguneko ihardunaldia antolatu dute. Beste zubi bati itxaron behar atsedena izateko!

■ IZEN ALDAKETA

Adelaida taldeak babesle berria aurkitu eta aldatu egin du izena. Hemendik aurrera Adelaida Aldibi izenaz ezagutuko da.

Saillkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Irati STS	4	4	0	0	25	4	6
Ojo avisore	4	4	0	0	32	6	6
Betrayer	4	4	0	0	29	6	6
Abinagraus	4	4	0	0	27	7	6
Aurre Bolie	4	3	0	1	24	8	6
Galartza Konte	4	3	0	1	23	9	5
Pipwhis	4	3	0	1	20	12	5
Arogoi Taberna	4	3	0	1	13	17	4
DKB	4	2	1	1	15	9	4
Krsikibalda	4	2	1	1	13	11	4
Baneuko	4	2	1	1	9	10	4
Leya	4	2	0	2	9	14	3
Berango sukaldeak	4	1	1	2	17	19	2
Lorategi potyroak	4	1	1	2	11	15	2
Mela pela	4	1	0	3	11	15	2
Alaia Gozokiak	4	1	0	3	8	24	1
Onaniereng	4	1	0	3	4	23	0
Potrosorri	4	1	0	3	7	14	0
Totem	4	0	0	4	12	22	0
Viboras	4	0	0	4	6	17	0
Kaxi Gananos	4	0	0	4	3	24	0
Etxe Mobil	4	0	0	4	2	33	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Orlando Piratas	4	4	0	0	26	14	6
Txeenex	4	3	1	0	18	10	6
Sokoakoak	4	3	0	1	27	7	6
AC Surkos	4	3	0	1	39	13	6
Bedarreta taberna	4	3	0	1	24	10	4
Sortu Informatika	4	3	0	1	19	9	4
MSM Ingenieria Integral	4	3	0	1	18	4	4
12							4
Danok Lagun	4	2	1	1	10	11	4
Adelaida	4	2	1	1	14	18	4
Nuevo taberna	4	1	2	1	14	11	3
Koka Juniors PE	4	1	2	1	12	11	3
Los Dimy	4	2	0	2	17	21	3
Lautherbrunnen	4	2	0	2	11	18	2
KK Jauraritzari	4	1	1	2	11	19	2
Rotor de Bolbogrado	4	1	1	2	4	16	2
Hirei	4	1	0	3	15	21	2
Tronkoteak	4	1	0	3	10	14	1
Iluna taberna	4	1	0	3	13	21	0
Anbotoste KT	4	1	0	3	8	16	0
Bukanak	4	1	0	3	11	30	0
Cartonajes Igamo	4	0	1	3	6	15	0

Hurrengo partiduak

**AZAROAK 1, OSTIRALA
Zaldibar**

- 08.50 Berango Sukaldeak - Arrogoi taberna
- 10 Perrahotsa - Pepelus
- 11 Hapoel Jamon - Argi Ibili
- 12 Adelaida - AC Surkos
- 13 Koka Juniors - Bedarreta taberna
- 14 Sobredosis de Txeira - Insert Coin
- 15 Viboras - Abinagraus
- 16 La Mosca gao - Ganbelas
- 17 Los Dimy - Sokoakoak
- 18 Me la pela - Pipwhis
- 19 Tronkoteak - Txeenex

**AZAROAK 2, LARUNBATA
Zaldibar**

- 08.50 MSM ing. Integ.- Cartonajes Igamo
- 10 Diego Antonio - Ke Oxtias!!
- 11 Aurrera Bolie - Irati STS
- 12 Los Heredia - Naranja Mecanica
- 13 Kaxi Ganamos - Potrosorri
- 14 Elisabeth - Jotakabau
- 15 Bukanak - KK Jauraritzari
- 16 GualtrapasIK - Cerveceria Leniz
- 17 Baneuko - Kriskibalda
- 18 Totem - Leya
- 19 Kinder Konpresa - Motz
- Iturripe A**
- 15 Los Innombrables - ZZPPW7

- 16 Onaniereng - DKB
- 17 Anbotoste KT - Iluna taberna

Iturripe B

- 15 Hirei - Rotor de Bolbogrado
- 16 Etxe Mobil - Betrayer
- 17 Borrock'n roll - Lautherbrunnen

**AZAROAK 3, IGANDEA
Zaldibar**

- 08.50 Galartza kontenedoreak - Ojo Avisore
- 10 Alaia gozokiak - Lorategi Potroak
- 11 Sortu Informatika - Orlando Pirates
- 12 Fosforos - Okoretegi
- 13 Nuevo taberna - Danok Lagun

Labur

NEURKETA AZPIMARRAGARRIENAK

Ostiraletik domekara 33 partidu jokatuko dira Zaldibarren eta Iturripen. Horien guztien artean lau azpimarratuko ditugu: Ostiralean 12etan Zaldibarren Adelaida eta AC Surcosen artekoa. Zapatuan 11etan Aurre Bolie eta Irati STS. 12etan berriz, Los Heredia eta Naranja Mekanikak jokatuko dutena eta domekan Fosforos eta Okoretegiaren artekoa.

B taldea

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Insert Coin	4	4	0	0	19	4	6
Okoretegi	4	3	1	0	27	6	6
Motz	4	3	1	0	18	8	5
Argi Ibili	4	3	0	1	24	10	5
Naranja Mekanika	4	3	0	1	17	9	4
Cer Leintz	4	3	0	1	9	5	4
Jotakabau	4	3	0	1	14	15	4
ZZPPW7	4	2	1	1	22	13	4
Los Innombrables	4	2	1	1	20	21	4
Ke Oxtias	4	1	2	1	17	13	4
La MosCa Gao	4	1	2	1	22	20	4
Fosforos	4	2	0	2	14	15	4
Sobre dosis de txeira	4	2	0	2	14	3	3
15							2
Ganbelas	4	2	0	2	18	20	2
Los Heredia	4	2	0	2	12	15	1
Diego antonio	4	1	0	3	14	19	1
Perrahotsa	4	0	2	2	9	13	1
Pepelus	4	0	1	3	6	10	1
Gualtrapas	4	0	1	3	10	21	1
Kinder Konpresa	4	0	1	3	8	18	0
Elisabeth	4	0	1	3	5	29	0

Emaitzak

LAUGARREN IHARDUNALDIA

A taldea

- Alai gozokiak 5 Me la pela 4
- Lorategi potroak 2 Aurrera bolie 6
- Irati STS 6 Baneuko 2
- Kriskibalda 7 Berango Sukaldeak 7
- Arrogoi taberna 2 Galartza kontenedoreak 12
- Ojo Avisore 15 Etxe Mobil 0
- Betrayer 7 Viboras 2
- Abinagraus 5 Totem 4
- Leya 3 Kaxi ganamos 1
- Potrosorri 2 Onaniereng 3
- DKB 4 Pipwhis 5


B taldea

- Los Innombrables 3 Perrahotsa 3
- ZZPPW7 7 Kinder Konpresa 1
- Motz 4 Sobredosis de Txeira 2

- Insert Coin 5 La mosca gao 2
- Ganbelas 3 Diego Antonio 8
- Ke Oxtias!! 8 Hapoel Jamon 1
- Argi Ibili 6 Fosforos 2
- Okoretegi 15 Elisabeth 1
- Jotakabau 5 Gualtrapas IK 3
- Cerveceria Leniz 1 Los Heredia 2
- Naranja Mecanica 3 Pepelus 2

D taldea

- MSM Ingenieria Integral 4 Bukanak 5
- Cartonajes Igamo 1 Nuevo taberna 1
- Danok Lagun 2 Koka Juniors 2
- Bedarreta taberna 1 Sortu Informatika 5
- Orlando Piratas 5 Anbotoste KT 1
- Iluna taberna 7 Borrock'n roll 6
- Lautherbrunnen 1 Los Dimy 8
- Sokoakoak 5 Hirei 1
- Rotor de Bolbogrado 2 Tronkoteak 1
- Txeenex 4 Adelaida 4
- AC Surcos 12 KK Jauraritzari 4



Auto marka berriak ate joka

Orain dela urte batzuk pare bat markako autoak ikusten ziren bailarako errepideetan. Ondoren, beste marka batzuk eskaintzen zituzten banatzaileak zabaldu ziren, eta

ordutik, itxura desberdineko autoak ikusten dira.

Baina autoen merkatua zabalda da, eta beste marka batzuetako autoak ere ate joka hasi dira, batez

ere japoniarrak eta korearrak. Gutxi barru, beste zenbait marka desberdineko autoak eskainiko dituzten kontseziarioak zabalduko dira Arrasaten.

Maria Agirre

Hainbeste automobil saltzen da? Galde dezake edonork beste marka berri askotako autoak saltzen hasiko direla jakitean. Saltzaileek diote azken urteetan autoen salmantan gorabehera gutxi egon dela, eta datozentean ere ez dela aparteko gorakadarik izango. Baina esandakoa, merkatua zabalda da eta

hemendik aurrea pastela gehiagoren artean banatu beharko da. Tamalez, konpetentziak ez ei du autoen prezioan beharakadarik ekarriko. Ez litzateke txarto egongo ba!

ZEINTZUK DATOZ?

Estatu osoan eta baita Leintz Bailaran ere, automobilaren sektoreak garrantzia handia du. Diru asko mugitzen duen sektorea izateaz

gain, hainbat laguni ematen dio lana eta bailara honetan zehazki, lantegi asko dira autoaren sektorerako lan egiten dutenak. Azken urteetan hazi egin da automobilaren merkatua eta hazkunde hori ez da geratu. Horren lekuko gutxi barru herrian zabalduko diren beste bi kontseziario: bata Mugarriten, Aretxabaletarako bidean, eta beste Musakolan, A-20 arean.

Lehena Muxibar fami-


liartekoek zabalduko dute. Honetan beharbada hiru marka desberdineko autoak jarriko dira salgai, baina oraingoz Mitsubishi multinazional japoniarrarekin bakarrik itxi dute tratua eta bitartean nahia-godo dute besteen berri ez eman. Salmenta eremua Sorluzetik hasi eta Eskoriatzaraino dau den herri guztietara zabaltzen da, Oñati eta Antzuola barne.

Marka horietako autoak oraindik gutxi saltzen direla

eta, batzuek diote arriskutsua izan daitekeela orain eskaintzen hastea, azkenean Gasteizen marka horietako autoak badaudelako. Rafa Etxabek, Mugarriko komertzial buruak, berri, argi dauka orain ez bada hemendik gutxira beste batzuk etorriko direla marka horiek eskaintzera. "Eta jakina, hemen eskaintzen ez diren bitartean, jendea derrigorrez Gasteizera edo beste toki batera joan beharko da erostera".


Marka desberdineko autoak saltzearena gainera, azken urteetako joera ei da: "etsaiarekin ezin baduzu, bat egin berarekin". Etxaberen esanetan, orain multimarkaren gaia indarra hartuz doa. Hau da, lehendik estruktura sendoa duenak beste marka batzuetako autoak hartzen ditu; horrela, kontseziario bereko garajeak marka desberdinei eskaintzen die zerbitzua.

Multimarkaren ildotik doa Musakolan 11 bazkidek irekiko duten kontseziarioa ere. Azken horretan marka gehiago jarri nahi dira salgai: Nissan (japoniarra), Mazda (japoniarra), Hyundai (korearra), Chrysler (ipar amerikarra) eta Volvo (suediarra). Horrez gain, beste marka batzuekin ere harremanetan ari dira, eta beraz, baliteke gehiago izatea. Jose Mari Barrutiabengoa, kontseziario horretako gerentearen esanetan, "marka horietako autoak gutxiago saltzen dira baina marka desberdinak elkartuta, kontseziario indartsuek lortzen duten salmenta kopurura iritsi nahi dugu. Urtean 300 auto berri eta bigarren eskuko 200 saltzea da helburua. Marka horietako autoei orain arte zerbitzu eskaxa eskaini zaie, baina zerbitzu osoa emanda jendea marka berriak erostera anima daiteke". Kontseziario honen salmenta eremua ere nahiko handia da:



Rafa Etxabe

"Marka berriak egotean, gainontzekoek ez dute salmentan asko igerriko, baina min apur bat egingo du"



Eduardo Bujanda

"Gaur egun jendeak ez du automobila kapritxoagatik erosten, baizik eta beharrezkoa dutelako"

Jose Mari Barrutiabengoa

"Marka desberdinak elkartuta, kontseziario indartsuek lortzen duten salmenta kopurura iritsi nahi dugu"

Nissan markarekin Zarautzeraino zabaldu dute salmenta eremua, eta gainontzekoekin, Zumarragatik Eskoriatzaraino. Hasierabatean 14 laguni emango die lana negozio berri horrek.

KONPETENTZIA

Auto saltzaileek diotenez, datozen urteetan ez da auto gehiago salduko, eta azken urteetako antzerako kopuruak lortuko dira salmentetan. Beraz, marka gehiago egonik, erosleen kopurua gehiagoren artean banatu beharko da. Rafa Etxaberen ustez, "marka berriak egotean gainontzekoek ez dute salmentan asko igerriko, baina min apur bat egingo du. Marka ezagunek antzera salduko dute baina berriak ere hemendik bat eta handik beste bat saltzen hasiko dira, eta hori zertxobait igerriko da".

Meca tailerreko Eduardo Bujandak ere antzera pentsatzen du: "datozen marka berriak apur bat ezezagunak direnez, lehendik gaudenok aurrerantzean ere antzera salduko dugu baina jakina, zertxobait eragingo du". Bujandaren iritziz, gainera, konpetentziaren gupila geratu ezin daitekeen zerbait da. "Merkatuan gutxi ezagutzen ziren markak orain toki guztietan ate joka hasi dira, beraz, orain edo beranduago konpetentzia etorri egingo da. Azken finean automobilaren sektoreak diru asko mugitzen du, eta oso konpetitiboa da".

EROSLEAK ZER DIO?

Merkatuko kontuak aldatuz doazen moduan, eroslea bera ere aldatuz doa eta Eduardo Bujandak dioen bezala, gaur egun jendeak ez du automobila kapritxoagatik erosten, baizik eta beharrezkoa dutelako. "Kontsumitzaileak kontzientziarekin erosten du orain, eta hori ona da".

Baina hortik aurrera zeri



Saltzaileen esanetan, aurrerantzean gero eta lehenago aldatu dugu autoz.

begiratzen diogu autoa eros-terakoan?

"Estetikak eragin handia du, batez ere emakumeengan, baina autoaren markak eta kontseionarioak duen irudiak ere garrantzia handia dute. Horrez gain, erreferentzien bidez ere asko mugit-

tzen da jendea, hau da, norbaitek auto horri buruz hitzegin diolako.

Rafa Etxaberen iritziz, "gaur egun auto gehienak produktu moduan antzera-koak dira, eta horregatik, zerikusi handia du produktu hori merkaturatzeko erak eta kon-

tezionarioak ere zein ohiartzun duen. Jakina prezioari ere begiratzen zaio".

Jose Mari Barrutiabengoaren ustez, berriz, "eroslea orain exigenteagoa da baina bakoitzak ezaugarri batzueri begiratzen dio automobilaren erostean. Batzuek, ekonomiarri ematen diote garrantzia, beste batzuek estetikari, besteek mantenimenduari... Erosle bakoitza desberdina da".

Faktore askok eragiten du autoa erosterakoan, baina gaur egun asko begiratzen ei zaio segurtasunari. Gero eta gehiago, segurtasun aldetik autoak ezaugarri batzuek edukitzeari garrantzia ematen dio jendeak. Bujandaren esanetan, "jendeak dirua gastatzen du autoaren segurtasunean".

GERO ETA LEHENAGO JUBILATU

Askotan entzundakoa da honako komentarioa: "lehenago autoek gehiago irauten zuten". Saltzaileek diotenez horrela da, gaur egun gutxiago irauten dute baina ez txarragoak direlako. "Orain autoak lehenago aldatzen dira, besteak beste gero eta ezaugarri gehiago edukitzea eskatzen zaielako. Lehen 10 urte zituen autoa ez zen zaharra baina orain, berriz, bai" dio Bujandak. Rafa Etxaberen arabera ere, "autoa gero eta ziklo motzagoan aldatzeko joera dago, eta denborak aurrera egin ahala gero eta lehenago aldatuko dugu autoz".

Bailara honetan batz beste sei edo zazpi urtero aldatzen ei da autoa, baina Europako herri aurreratuenean konparatuta hutsa da hori. Alemanian, adibidez, ez dira lau urtera heltzen. Auto banatzaileek, berriz, argi dute Europar gertatzen denari jarraituz hemen ere batz beste hori jeitsi egingo dela. Beraz, nahiz eta erosle kopurua hazi ez, argi dago autoak salduko direla.

Zenbat auto Arrasaten?

Hurrengo taulan, zaldi fiskalak oinarritzat hartuta kategoria bakoitzean Arrasaten zenbat auto dauden azaltzen da. Alboan, berriz, kobratzen diren zergen bidez Udalak kategoria bakoitzeko zenbat diru jasotzen duen. (Datuak 96koak dira)

Zaldi fiskalak	Autoak kopurua	Zergen bidez jasotako dirua
8 HP-tik berakoak	146	500.000 Pta.
8 HP-tik 12HPra	5.863	46.500.000 Pta.
12 HP-tik 16HPra	2.424	40.500.000 Pta.
16 HP-tik gorakoak	105	2.200.000 Pta.
GUZTIRA	8.538	89.700.000 Pta.

Preferenteko taldea eta emakumeak Atxabalpen

Mondrako emakumeek bi neurketa izango dituzte hiru eguneko asteburu honetan. Ostiralean Anaitasuna eta Mondra izango dira aurrez aurre Txerloioako Futbol zelaian. Norgehiagoka arratsaldeko 3.45etan hasiko da. Mondrak Ikesiri 5 eta 0 irabazi ondoren, dagoeneko hurrengo garaipenean amets egiten du. Anaitasuna talde sendoa da baina jokalariek dakiten bezala jokatzeko badute, Arrasateko entrenatzailea, puntuak eskuratzeko arazorik ez dela izango uste du. Hori dena dela, ez da Mondrak jokatu duen neurketa bakarra. Domekan goizeko 11.30etan beste zita bat izango dute Atxabalpen. Tuterako taldea etorriko da bisitari. Nafarrek gaur arte ez dute maila handirik erakutsi eta hori datu positiboa da Mondrako emakumeentzat.

Aranburuzabala berriro Mondran

Preferente mailako Mondrak etxetik kanpo ez ei daki



Mondrako emakumeek bi neurketa jokatu dituzte asteburuan.

irabazten beraz etxean jokatzen dituen partiduetan ezin du amore eman. Domekan arratsaldeko 4.45etan Real Unionen kontra neurtuko ditu indarrak Atxabalpen. Erronka ez da samurra izango, izan ere Irungo taldea sailkapeneko 4. tokian dago 14 punturekin. Gaurdaino zortzi partiduetatik lau irabazi ditu eta bi galdu. Batz bes-teko ona goialdean egon daitekeen taldea dela erakuste-

ko. Mondrak etxetik kanpo ez du neurketarik irabazi: Hondarribiaren kontra banako berdinketa lortu zuen, Beti Gazte 2 eta 0 nagusitu zen, Lazkaok izugarritzko jipioa sartu zion 4 gol lortuz eta Anaitasunaren kontra 2 eta 0 galdu zuen. Etxean hiru neurketa irabazi dituzte: Zestoa, Oiartzun eta Ilintxaren kontra eta bakarra berdindu Mondarro aurkaria izanda.

Jesus Mari Barrutiaben-

goak beraz, ondo aztertu beharko du neurketa hamai-kako onena zelairatzeko. Baina lan horretan ere zailtasunak izango ditu, Mondrako eritegia jendez gainezka dago eta. Domekan Alberto aurrelariak orkatilan min hartu eta bihurdura du beraz gutxienez 2 aste zelaietatik kanpo egongo da. Golo erdi ikututa gertatu bazen ere domekarako gertu izango da. Tolari errotulako ebakuntza egin zioten, bere errekuperazioa ondo joan arren, oraindik luzerako dauka, Zuluetak beste bi astez ezingo du entrenatu eta Beñat beharbada azaroan edo abenduaren hasieran egon daiteke jokatzen. Baja hauez gain, Otxoak txartel gorria ikusi zuelako bi edo hiru neurketako zigorra bete beharko du.

Bestalde Juan Luis Aranburuzabala asteartean hasi zen entrenatzen. Aranburu beraz berriro Mondra taldeko jokalaria izango da eta jokalaria erabakiorra, bere trebetasun eta esperientzia nahi eta nahiezkoak izan daitezke eta.

Saioa taldeko karatekak lehen postuak eskuratu

Arrasateko Saioa gimnasiko karatekek Donostiako promozio mailako karate txapelketan hartu zuten parte. Partaideak 14 urtetik 18 urtera arteko karatekak izan ziren, 127 guztira eta horien artean zortzi arrasatear. Saioa gimnasioko Iban Galanek, Aimar Gonzalezek, Urki Anzizarrek eta Jonatan Kintasek txapelketa bikaina egin eta gero, lehenengo lau postuak esku-

ratu zituzten. Azaroaren 10ean berriz, beste promozio txapelketa bat burutuko da Donostian kadete eta juniorrentzat. Saioako 12 karateka joango dira eta Iñaki Muñoz entrenatzaileak esan duen bezala lehen postua lortzeko helburua dute, iaz ere ondo ibili ziren eta. Azaroaren 17an Gipuzkoako txapelketan izango dute zita Arrasateko karatekek.



Eskubaloi taldekoek beste garaipen bat etxean

Lehen mailako eskubaloi taldeak primeran hasi du denboraldia. Dagoeneko hiru neurketa jokatu dituzte eta bi garaipen lortu, biak Iturripen eta gol bateko aldeaz. Datorren zapatuan irabazteko moduko neurketa jokatuko dute Adrianense taldearen kontra. Bartzelonako taldeak arrasatearrak bezala bi neurketa irabazi ditu eta lau puntu ditu. Lau punturekin sailkapen nagusian bost talde daude parekatuta: Zarautz, OAR Gracia, Adrianense, Bordils eta Arrasate. Liderrak Casablanca berriz, bost puntu ditu. Aurreko postuetan parekotasuna da ezaugarri nagusi-



Eskubaloikoek Bartzelonan izango dute zita.

sia denboraldi hasiera honetan. Horrek argi adierazten du liga luzea eta lehiatsua izango dela bukaera arte.

Arrasatek zapatuan Bartzelonan jokatu duen partidua arratsaldeko 7.20etan hasiko da.



Rugbyariak hurrengo partidua prestatzen hasi dira dagoeneko.

Rugbyariak atsedena izango dute asteburuan

Arrasateko Rugby taldeak ez du neurketarik izango asteburu honetan. Hemenetik bi aste barru berriz, Atletiko San Sebastian taldearen bisita jasoko du Garagartzako zelaian. Gaur arte Patxi Gorosabelen mutilek emaitza bikainak lortu dituz-

te, eta garrantzitsuena, joko ona eginez. Horrek itxaropena ematen du denboraldiari begira baikor egoteko. Patxi entrenatzaileak konfiantza osoa du taldearengan eta jokalariek ere denboraldi bikaina egiteko gauza izan daitezkeela uste dute. Gaur

arteko emaitzak gainera hori pentsatzeko arrazoiak ematen dituzte. Lesionatuei dagoenikenez, Joseba Maidaganekin hartu zuen azken partiduan baina bere lesioa ez da larria eta Garagartzan jokatuko den partidurako gertu izango da.

Saskibaloikoak buru makur

Kontzentrazio falta, urduritasuna, aurrendenboraldi motza, horren guztiaren erruz saskibaloi taldeak oraindik ez du garaipenik ezagutu. German Mongeren mutilek bi norgehiagoka jarraian jokatu dituzte Iturripen, bietan jokalarien esku egon da puntuak lortzea baina une erabakiorretan ez dute ondo erantzun. Aurten Urbina Maltzagak abiatan oinarritzen du bere jokoa eta sistema horrek aurkari nahi baino arazo gehiago ematen badie ere, oraindik ez dira fruituak etorri emaitzei dagokienez. Taldeko ordezkariek Moises Michael atzerritarra taldea sendotzeko jokalaria erabakiorra izan daitezkeela uste dute baina ez da ahaztu behar bere etorrera asko atzeratzen ari dela. Gainera normala denez, jokalaria horrek bere denbora beharko du taldera egokitzeke eta denbora bera bihur daiteke Arrasateko taldearen etsai handiena. Atzerritarra datorren bitartean, dauden jokalariai saiatu beharko dira lehen garaipena lortzen eta horretarako domekan izango dute aukera Montcada taldearen kontra. Bartzelonan jokatuko du partidua arratsaldeko 6etan.

Pilota partiduak Iturripen

Arrasateko pilotariak hiru neurketa jokatuko dituzte gaur arratsaldeko 7etan Iturripen. Juniorren aurkaria Aloñamendi taldea izango da. Eskuz binakakoena Billa-bona eta Seniorrena Altzako Boskotarrak. Ostiralean kadeteek Bergarako pilotariak izango dituzte aurrean goizeko 10etan Bergarako frontoian.

Altar musika taldea

Bigarren maketaren arrakasta dastatzen

Jose Mari Agirrebeitia, Mikel Maese, Ion Ramila eta Juan Manuel Cobos arrasatearrek osatzen dute ingelesez abesten duen Altar taldea. 94an atera zuten lehenengo maketa, presaz egindakoa diotenez, baina orain taldean aldaketa batzuk gertatu ondoren, bigarrena kaleratu dute eta oso pozik geratu dira emaitzarekin. 200 maketa kalera atera eta hiru egunetan guztiak saldu ziren. Euren lana Euskadi Irratiko maketa lehiaketara bidali dute.

— Ze desberdintasun daude lehenengo eta bigarren maketa honen artean?

— Mikel: 1994an atera genuena presaka egin genuen, nahiko azkar, gainera ez genuen esperientzia handirik. Hau berriz, lan serioagoa izan da, egun gehiago pasa dugu grabatzen. Bestalde, 94tik hona Shot estudioara ekipo hobea ekarri dute eta ondorioz grabaketak hobeto ateratzen dira. Uste dugu bigarren maketa hau lehenengoa baino askoz hobea dela.

— Taldean ere aldaketak egon dira 94tik hona...

— M: Bai. Bokalista berria sartu da taldean, Juanma. Gainera, lehen erdaraz abesten genuen, orain berriz, ingelesez. Egiten dugun musika ere desberdina da, ez genuke definitzen jakingo baina aldatu egin da, askoz bariatuagoa da. Batzuk trash speed egiten dugula



diote baina gu ez gaude etiketen alde.

— Zergatik orain ingelesez?

— Juan Manuel: Taldean sartu nintzenez banituen ingelesezko abesti batzuk eginda, beraz, hauei erakutsi nizkien eta gustatu zitzaiezen, ingelesez abesten hasi ginen. Gainera, nire ustez, ingelesez abestea erderaz abestea baino hobeto geratzen da, ez dakit, badirudi ingelesezko letrik harrera hobea

duela. Bestalde, erdarazko hitzak gogorregi geratzen dira belarrira, ingelesa berriz errezago da entonatzeko, joku gehiago ematen du. Estetikoki politago geratzen dela uste dugu.

— Ingelesez idazteko ondo menperatu behar da hizkuntza hori, ez?

— Juan Manuel: Bai baina abantaila bat daukagu. Jose Mariren arreba ingeleseko irakaslea da, beraz, berak zuzentzen dizkigu egiten ditugun letrak.

— Euskaraz abesteko asmorik ez?

— J.M: Bai, badugu euskaraz abestiren bat egiteko asmoa eta aurrerago egingo ditugu.

— Zertaz hitzegiten duzu egiten dituzun letratan?

— Juan Manuel: Gai guztien inguruan egiten ditut letrak, amodioa, gizarte arazoak... politika ezik, dena.

— Nora bidali duzue maketa?

— M: Euskadi Irratira, Cadena 100era eta hainbat disketxetara. Gure maketa entzun eta abesti batzuk bota ditzatela nahi dugu.

— Jendeak entzuten du zuen musika?

— Jon: Orain arte eman ditugun kontzertuetan erantzun ona jaso dugu. Jendeak ondo pasatzen du gure kontzertuetan eta egia esan behar bada, bada fan taldetxo bat gure kontzertu guztietara etortzen dena. Horrek izugarri poztzen gaitu.

— Zenbat maketa saldu dituzue?

— Jose Mari: Urriaren 18an kaleratu genuen maketa eta dagoeneko guztiak daude salduta, bat bera ere ez da geratu. 200 atera genituen baina hau ikusita, gehiago aterako ditugu. Jendeak oso inpresio ona jaso du maketa entzun eta gero, gainera, ingelesez abesten dugunez, harrিতa geratzen dira talde arrasatearra dela jakitean.

“Urriaren 18an kaleratu genuen maketa eta dagoeneko guztiak daude salduta”

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Amaia antzokian azaroaren 6an

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskeiniko du azaroaren 6an, asteazkena, Amaia Antzokian. Arratsaldeko 7.30etan emango zaio hasiera kontzertuari Juan Jose Mena gasteiztarraren zuzendaritzapean.

Euskadiko Orkestrak eskeiniko duen programa bi zatitan banatuko da: lehen zatian J.M. Usandizagaren *Suite en La para Orquesta, Op. 14* eta A. Bruckner-en *Quinteto de Cuerda en Fa Mayor*; *Adagio* eskeiniko dute; bigarrenean berriz, Mozart-en *Sinfonia N°36 en Do Mayor*.

Askori arraroa egingo zaio asteazkenean kontzertu bat egotea baina Mirentxu Elsegik, Euskadiko Orkestrako prentsa arduradunak esaten duenez, orkestrak astegunetan jotzen du normalean.

Era berean, prentsa arduradunak azaltzen duenez, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak orain 14 urte zuen filosofia berberari heldu nahi dio berriz ere. Orkestra hau 1982. urtean sortu zen eta hasierako urteetan, orkestra bera ezagutzera emateko, herri txikietako aretoe-



Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.

tan kontzertuak eskaintzeari ekin zion. Kontzertu hauen helburua orkestra bera promozionatzea zen. Urteak aurrera joan ahala eta orkestra ezagunago bihurtu zen neurrian, kontzertuak bakarrik hiriburuetan egitea erabaki zuten. Horrela pasa dituzte urte batzuk, baina orain hasierako filosofia berberara bueltatzea erabaki dute eta hain zuzen ere, horregatik datoz asteazkenean Arrasatera. Aldaketa horrekin orkestrari oreka bat eman nahi diote, hau da, hiriburuetan jotzeari utzi barik, herri txi-

kiagoetako aretoetara ere eramane euren errepertorioa.

Mirentxuk dioenez, Arrasaterekin beti izan du lotura estua orkestrak. Urruti joan barik, ekainean Donostiako Orfeoiaekin Amaia Antzokian eman zuten kontzertua gogoratzen du. Lotura horregatik eta filosofia berri horri ekin nahi diolako etorriko da orkestra Arrasatera.

Esan bezala, Juan Jose Mena gasteiztarrak zuzenduko du orkestra baina esan behar da bera ez dela zuzendari titularra. Momentuotan orkestrak

ez du zuzendari titularrik baina gasteiztarraren kolaborazioari esker, eman dituzten kontzertuek arrakasta handia izan dutela esaten du Elsegik. Horren adibide, orain gutxi Donostiako Victoria Eugenia eman zuten kontzertua. "Sarrerarik ez dago" zioen karteltxoak eskegi behar. Elsegiren esanetan, aspaldi ez zuten horrelakorik egiten.

Bestalde, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak hainbat kontzertu didaktiko emateko asmoa du Donostiako Victoria Eugenia eta Principal Antzokian. Kontzertu hauek Euskal Herriko musika eskola eta ikastoletako ikasleei zuzenduko zaizkie eta momentuz, SFX ikastolak eta Arrasate Musikalek, azaroaren 16an Principal Antzokian egingo den kontzertuan parte hartzeko asmoa azaldu dute.

Asteazkeneko kontzertuari dagokionez, akademiako bazkideendako sarrerak 1.000 ptatan eta bazkide ez direnendako 1.500ean salduko dira. Sarrerak Arrasate Musikalen egongo dira salgai, eta kontzertu egunean, takilan.

CORRERIA KALEA

DENDEN KALEA!!!

HILEROKO LEHEN ZAPATUETAN CORRERIA KALEKO DENDEK MERKADILOA EGITEN DUTE. BERTAN, ERA GUZTIETAKO ARTIKULOAK GIRO APARTA BATEN AURKI DITZAKEZU. ZATOZ ZAPATU HONETAN ETA EZAGUTU EZAZU!

ANDRAMARI ZURI PLAZAREN ONDOAN · GASTEIZ

F

iurtasun osoz ezin esan noizkoa den gure gaurko argazkia. Hala ere, jakin badakigu 1911. urtea baino lehen ateratakoa dela, Biteriko lorategi zaharrean. Mondragoeko banda ikusten da, atzean kioskoa dagoela. Kioskoa dagoen tokian beranduago estatua jarriko zen. Bandaren eta kioskoaren atzealdean ikusten den txaleta, berriz, Barrenatarren txaleta zen.

Bandako zuzendaria **Guillermo Lasagabaster** zen, eta argazkian agertzen diren beste batzuk, honako hauek: **Nazario Madina-beitia, Santiago Olazabal, Zarraoa, Daniel Arkauz, Jose Urionabarrenechea, Miguel Sampedro, Pedro Arambarri "Pedro Haundi"**.



HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

AGR
Pavimentos AGR
EGURREZKO AROZTEGIA
Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA
Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tfnoa: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETAK

EGIN ZAITEZ AUTOESKOLA IRAKASLE
Hilero 200.000 pezeta
inguruko soldata
INFORMA ZAITEZ
40 05 98 edo 39 74 37

Hilbera kafetegia
Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 22 70

LAKET
Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis
Otalora, z/g Behea
ARRASATE
Tfnoa: 79 11 72

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

Z E R N A H I A G O ?

Isabel Urzelai**Sirimiri dendakoa**

- Ilea batuta ala batu barik? Batuta.
- Zergatik dendari Sirimiri izena? Oso hitz ezaguna eta erabilia delako Arrasaten.
- Arrasateko mutilak dotoreak dira? Kanpokoak gehiago baina gauetan bai zaintzen dutela itxura.
- Eta neskak? Bai.
- Zapata lauak ala takoidunak? Plataformadunak.
- Zinea ala antzerkia? Antzerkia.
- Aktore bat? *Brad Pitt*.
- Banda sonoro bat? *Memorias de Africa*.
- Jantzi marka bat? *Custo Line*.
- Zenbatero aldatzen duzue eskaparatea? Hamabostero.
- Nola deitzen dira zure semeak? Ander eta Aritz.
- Makilatzen zara? Bai.
- Modelo bat? *Cindy Crawford*.
- Sinisten duzu politikan? Ez diot kasu handirik egiten.
- Kolore bat? Beltza.
- Arrain bat? Bixigua.
- Liburu bat? *De parte de la princesa muerta*.
- Aldizkari bat? Hola.
- Noiztik tintatzen duzu ilea? Kanak ditudanetik.
- Mania bat? Jertseari beherutza tira egitea.
- Irrati emisora bat? Herri Irratia.
- Zer ez duzu aguantatzen pertsona batean? Harrokeria.
- Garagardo marka bat? San Miguel.
- Garestia da arropa? Ez dut uste. Azken 6 urteetan ez da bere prezioa igo.
- Dendari izango ez bazina... Kantaria izango nintzateke.



LABURRAK

Helduendako Bertso Eskola

AEDk Helduendako Bertso Eskola antolatu du. Azaroaren 8an, ostiralean, arratsaldeko 8.30etan hasiko da.

Eskolaren dinamika didaktiko-gastronomikoa izango da, izan ere, ostiraleko afari-merienda eginez botako dira bertsoak. Danel Gokoleak, ekimenaren bultzatzaileak dioenez, astero ikasle batek afaritxoa prestatzea litzateke asmoa. Izena emateko AEDra deitu behar da, 771228 telefonora edo bestela, azaroaren 8an bertan AEDn bertan agertuz.

Ikastaro arrakastatsuak

Honez gero, Gazteria Sailak antolatutako ikastaroetako plazak beteta daude. Dantza Karibearren ikastarorako 26 plaza zeuden eta dagoeneko bete dira. Argazkigintza ikastaroko plazak ere bete dira. 14 lagunek eman dute izena hasitapen mailakoan. Euskal Dantza eta Txalaparta ikastaroko urriaren 18an eta 26an hasi ziren. Hauetan 43 eta 20 lagunek eman dute izena.



Kabia
ALTZARIAK



Erreformagatik guztia merke baino merkeago!

Prezio sinestezinak!

Aukera aparta!

Zatoz ikustera!


Gipuzkoa Etorbidea, 28 • ARRASATE • Tfnoa: 79 27 70

• ESAERA •

“Erljioa gizakia eta animaliarene artean dagoen desberdintasun esentzialean oinarritzen da: animaliek ez dute erlijiorik”


LUDDWIG FEVERBACH

• JEROGLIFIKOA •



Zer ehizatu zenuen asteburuan?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Gallastegi, EAko parlamentaria eta zinegotziaren izena. 8. Zabaltasunaren neurria. 10. Frantziako irla Atlantiar Ozeanoan. 11. Dukerriaren buru. 13. Mahometar izena. 14. Ukatu aditzaren infinitiboa. 16. ABELen bokalak. 17. Julian pilotari nafarra. 20. Ekintza gaitzesgarri bat izendatzeko irain-hitza.

Bertikalak 1. Izutzearen ondorioa. 2. Sozietate Anonimoaren sigla. 3. Legegizon. 4. Zerbait ontzat emateko hitza. 5. Hitz, berba. 6. Irristatuz ibiltzeko eta garraiorako ibilgailuetan. 7. Danimarkan erabiltzen den hizkuntza. 9. (Ald.) Lantzen den lur-saila. 12. (Ald.) Toki. 15. (Ald.) Euskararen Gaitasun Agiria. 18. Europako Komunitatea. 19. Iridioa.

• HOROSKOPOA •

Aries Aberatsa izatea lortuko duzu baina ez dakit noiz.

Taurus Zure erabakiaren zain dago zuk dakizun maitale hori.

Gemini Zurekin ez dago inora joa-terik. Beti umore txarrez.

Cancer Gaztetan jatorragoa zinen, orain berri...

Leo Badira benetakoak eta benetakoak ez diren lagunak.

Virgo Jendea lotsatuta uztea gustatzen zaizu baina zu ere lotsatia zara.

Libra Oso urduri ikusten zaizu. Tran- kildu zaitez.

Scorpio Esperientzia garrantzitsua da baina noizbait hanka sartu behar da.

Sagitaris Ez duzu uste ikasten hasteko berandutxo dela?

Capricorn Autoan bizkorregi joa- ten zara. Kontuz!

Aquarius Elkartasuna erakustea ez da zure bertuteetariko bat.

Piscis Irratia pizten dute etxean zure garraisiak ez entzuteko.

Etxe Aundi
Hotela** Jatetxea


Torreauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



*Gaur ez bada,
bihar
ezkonduko
zara...
Etxe Aundin
zure zain
gaituzu.*

Fray Rufino lotsagabe...

Hurrengo asteazkenean Nereak eta Maierek Arrasaten oso ezaguna den lagun bat elkarrizketatuko dute euren programan: Fray Rufino bera. Rufino herriko gazteen lagun handia da eta mila anekdota du kontatzen. Horiek guztiak hurrengo asteazkenean informatiboan ondoren ATBko Lotsa Barik saioan, 9.30etan.



Hiper Eroskiri buruzko mahaingurua atzeratuta

Joan den asteko aldizkarian eta orrialde honetan, Hiper Eroski berriak herrian izan dezakeen eraginari buruzko mahaingurua iragarri genuen urriaren

30erako. Mahainguru hori atzeratu egin da eta azaroaren 6an izango da, asteazkenean eta gaueko 9etan. Mahaingurua Ion Iñaki Lasak zuzenduko du eta gonbidatu

gisa Eroskiko, Udaleko, Ibai Arteko ordezkari bat eta herriko dendari batek hartuko dute parte. Programan kalean egindako inkesta ere eskainiko da.

ARRASATE IRRATIA (FM 107,7)

Nobedade handirik ez da izango aste honetako programazioan, ohiko programak entzungai, goizez eguneroko albisteak eta Goizoro magazina. Gauez, berriz, 9etatik aurrera, honako pro-

grama hauek: Asteleheneran Caravanserai musika programa, asteazkenean KK2A, ostegunetan Txerrendantza eta Adi Egon, eta ostiraletan KGB. Astearteko tartea oraindik ez da bete.

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1. Isabel, 8. Zabaleria, 10. Oleron, 11. Duke, 13. Aiti, 14. Uka, 16. Ae, 17. Retege, 20. Aluke-
Bertikalak: 1. Izudura, 2. S.A. 3. Abokatu, 4. Bala, 5. Ele, 6. Lera, 7. Dantera, 9. (Ald.) Alor, 12. (Ald.) Leku, 15. (Ald.) EGA, 18. E.K. 19. Ir.

Jeroglifikoak: Bi ahate.

PROGRAMAZIOA



1 Ostirala

Ez da programaziorik egongo

4 Astelehena

13.35etan

Astebete errep.

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Mondrasport

5 Asteartea

13.35etan

Mondrasport errep.

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Lotsa Barik

Gonbidatua: Fray Rufino

6 Asteazkena

13.35etan

Lotsa Barik errep.

20.00 eta 20.30etan

Berriak

21.00etan

Gure Objektibotik mahaingurua

Gaia: Hiper Eroski berriaren eragina herrian

7 Osteguna

13.35etan

Gure Objektibotik errep.

19.10etan

Kukaratxa Motel

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Kukaratxa Motel

8 Ostirala

13.35etan

Kukaratxa Motel errep.

20.00, 20.30 eta 21.00etan


Berriak

21.30etan

Astebete

Gaiak: Sexualitate zerbitzu berria eta Komite

Internazionalistak



Salmenta eta zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral

5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Etxebizitzak

- **Donostiako Antiguoa auzoan** pisua osatzeko pertsona bat behar dugu. Tfnoa: 77 00 29 (Josefa) edo 76 44 82 (Jon).
- **Lokala alokatzen da.** 70 m². Ura eta argiaz. Tfnoa: 79 76 95.
- **Pisua osatzeko pertsona bat behar da** San Andres auzoko Errebuelta kalean. Tfnoa: 86 07 86. Alaitz.
- **Arrasateko erdialdian logelak alokatzen dira.** Deitu 79 87 59ra 12etatik 5etara eta 7etatik aurrera.
- **Roneoko I ehenengo solairuan** garaje itxia salatzen da. Tfnoa: 79 18 70.
- **Erguin kalean lokal bat salgai.** Tfnoa: 79 18 70.
- **Pertsona bat behar da pisua osatzeko,** gela babakoa izango luke. Bañez doktorea, 2. 3. ezk., interesatuak arratsaldean pasatu.
- **Pisua salgai Uribe auzoan.** 8. zkia. 4. A. Tfnoa: (945) 44 50 64.
- **Erdiko kalean** pisu bat alokatzen da: 79 18 06.
- **Lokala salgai Erguinen,** orain drogadenda bezala dago. Tfnoa: 79 89 53.
- **San Andresen garaje plaza salgai.** Tfnoa: 79 73 82.

Lana

- **Klase partikularrak** ematen ditut Musakolan. Tfnoa: 79 35 24.
- **Umeak zaintzeko** eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tfnoa: (907) 74 21 00.
- **Magisteritzadun neska** batek lehen hezkuntzako eta DBHko lehen eta bigarren mailako klase partikularrak emango lituzke. 79 26 36. Rakel.

• **Esperientziadun neska** umeak eta nagusiak zaindu eta etxeko lanak egun osoz edo orduka lana egiteko prest. Mirian, 79 31 44.

• **Neska batek lana egingo luke** arratsaldeko 3etatik aurrera, etxeko lanak egin, umeak edo nagusiak zaindu... 79 93 17.

• **Emakume euskalduna** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 07 73.

• **Neska esperientziadunak** umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 95 92. Pili.

• **Esperientziadun klinika laguntzaileak** umeak edo helduak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 34 09. Amaia.

• **Zure etxea garbitzeko** neska gazte baten bila bazabiltza dei egizu 79 46 82 tfnora.

• **SOS. Lana behar dut.** Emakume gaztea naiz eta bi seme-alaba ditut. Kamarera lana egin izan ditut. Tfnoa: 79 53 18.

• **Majisteritza daukan neska batek** OHOk klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 48 64. Ainhoa.

• **Goi mailako industri injinerua** klase partikularrak emateko gertu. Tfnoa: 51 03 38.

• **Matematika eta matematika finantzieroko** klase partikularrak bihar ditut. Tfnoa: 79 40 24. Goizez. Libe.

• **Andra klinika laguntzailea** eta gerontologian diplomaduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 34 53.

• **Klase partikularrak** ematen dira. Tfnoa: 79 06 39.

• **Injinerutza ikasleak** DBH, UBI eta FPko klase partikularrak emateko gertu. Tfnoa: 79 16 19.

• **Geratria tituloduna** egunez edo gauez pertsona edadetuak edo umeak egunez zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 61 05. Amaia.

• **Umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 54 06.

Salerosketak

• **R11 TXE gorria salgai.** Egoera onean. Tfnoa: 79 43 46. Mikel.

• **Sanyo ECR 375 makina erregistratzailea salgai** dendarako aproposa. Prezioa: 50.000 pta. Tfnoak: 79 25 96 / 79 99 41.

• **Bigarren eskuko bi solarium** 20 lanparaduna salgai. Prezioa eta egoera onean. Tfnoak: 74 19 23 eta 74 21 82.

• **Bigarren eskuko sukaldea** laba eta guzti salgai. Egoera ona eta prezio interesgarria. Tfnoa: 79 49 28 dei egin gauez.

• **Niva Lada SS-AB autoa salgai.** Tfnoa: 76 15 58.

• **Ford Scort autoa salgai.** 30.000 km. Egoera ona. Tfnoa: 79 22 92.

• **Fiat Tempra 140 SX autoa salgai.** Tfnoa: 77 06 48. Gaueko 9etatik 10etara deitu.

• **Trabesiako ski ekipoa salgai.** Dynastor Extreen taulak, Fritchi fijazioak, Fritchi kutxilak, Fritchi larruak eta 41-42 zenbakiko botak. Prezioa: 35.000 pta. Tfnoa: 79 26 23.

Denetarik

• **Foruen Plazan gabardina bat agertu da.** Emakumezkoena eta grisa. Tfnoa: 79 50 79.

• **Tarot kartak irakurtzen ditut.** Tfnoa: 79 82 55.

• **Bergara-Donostia,** arratsaldeko 5etan joan edo gaueko 10etan etortzen bazara, zurekin gasolina konpartituko nuke. Tfnoa: 76 46 26 (Nekane).

• **Larunbat gauean kotxe baten** giltzak aurkitu nituen Arbolapeta inguruan. Jabea Udaltzaingora joan dadila.

• **Zaldi bat zure esku** 10.000 pta. ilean ordainduz gero. Tfnoa: 76 30 01.

Aste Gazte

Bekak

- Eusko Legebiltzarreko Ararteko Erakundeak, giza eskubideen alorrean ikerketak burutzeko hainbat beketarako deialdia egin du, gradu ondoko ikasketak dituztenei zuzenduta. Epea: azaroak 11.
- Jesus Gangoiti Barrera Fundaziok, gai ezberdinei buruzko ikerketarako 14 beka kaleratu ditu, goi mailako lizentziatuak zuzenduta. Epea: azaroak 18.

Lana

- Orioko Udalak, Kultura eta

Gazteriako Teknikari lanpostu bat kaleratu du. Epea: azaroak 12.

- Lazkaoko Udalak, Kudeaketako Erdi Mailako teknikari plaza betetzeko deialdia egin du. Epea: azaroak 12.
- Durangoko Udalak bibolin irakasle lanposturako kalaturiko baldintza batzuk eraldatu ditu. Eskariak luzatzeko epea zabalik dago oraindik.

Ikastaroak

- Gu Vi informatika zentruak, dokumentazio eta bibliotekonomia ikastaro bat antolatu

du, Donostian burutuko dena. Eskariak Gu Vi zentrura luzatu behar dira.

Lehiaketak

- Ondarroako Udal Euskara Zerbitzuak, Agustin Zubikarai Narrazio Sariak kaleratu ditu, bata gai librean eta bestea arrantzarri eta itsasoari buruzko edozein gai jorratuko duena. Epea: azaroak 15.
- Debako Udalak, XIV. "Tene Mujika" Narrazio Laburren Literatur Saria antolatu du. Lanak aurkezteko epea: azaroak 29.

"Gazteak gainera ez dute gupidarik: maite badute esango dute, eta ez badute ere adieraziko dute. Hori da erronka."

**AMAIA ZUBIRIA.
KANTARIA.
"EGUNKARIA"**

**Informazio gehiago:
GAZTE
ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

Merezi duzulako...

Datorren astean

Arrasate Press

berri bat **izango duzu**
esku artean!

**Eduki berriak,
itxura berria
eta kolaboratzaile
berriak, zuk horrela
merezi duzulako!**
**Mila esker
irakurle!**

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 



FAGOR sukalde altzaritan

eskaintza itzelaz gozatu.

DESKONTUA

+

OPARIA

%
20

Fagor sukalde altzaritan.



PVP: 80.000 pta.

Ciclón Plus

berria

CICLON PLUS-ekin: solidoak zein likiduak zurrupatzeaz gain, ur hotza/beroa/edota lurrunarekin garbitzeko aukera izango duzu

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42